

AMA SORAZUREN IDAZKI BATEZ

Por FR. LUIS VILLASANTE, O. F. M.

Telletxea jaunarengana jo nuen Ama Sorazuri buruzko azken liburua argitara nahirik nenbilenean. Jo nuen, eta bai berak lagundu ere. Iruditzen zait, bada, ez dela desegoki izango Telletxea jaunaren omenezko liburura gai hau ekartzeara.

Bide batez eskerrak bihurtzen dizkiot zeruko Aitari Telletxea jauna, hainbeste gaitz igaro ondoren, berriz sendaturik eman digulako. Izan ere, gaurko kinka larrian bera bezalako gizonen premia gogorra dugu. Zeruak anitz urtez gorde diezagula!

Gasteizko Seminarioko aldizkari batean argitaraberrri dut Ama Sorazuren idazki bat, orain arte sekulan plazaratu ez dena, hots, Autobiografiaren V. liburua (1).

Jakina denez, Ama Sorazuren Autobiografia Aita Nazario Pérez jesuitaren ardurapean Valladoliden agertu zen 1929. urtean. Aita hark berak agertu zituen moja horren beste zenbait lan ere.

Eta hau da kontua: Ama Sorazuren Autobiografia, bost liburuz osatua, bere eskuetan zuelarik, Aita Nazariok ez zuen osorik agertu (eta hala aitortzen du berak ere). Boskarren liburua geroko utzi zuen, eta gaur arte ez da kaleratu (2).

Beraz, boskarren liburua bide bazterrean gelditu zen. Aita Nazariok uste zuen, nunbait, ordukotz ez zela komeni argitaratzea, eta geroago ere ez, agian, osorik.

Aita Nazarioren asmoa zen Autobiografia honi bigarren partea

(1) Ikus *Scriptorium Victorlense* (1983), 90-126.

(2) Hala jokatzearan, artean bizirik edo hilberri ziren pertsona batzuen izen ona gorde nahi zuen. Hortaz gainera, badirudi orri hauetan aurkitzen diren zenbait pasarte gogortxok ere gibeleratzen zutela.

edo jarraipena berak eranstea, eta hori egiten zueneko utzi zuen boskarren liburuaren argitalpena. Baina urteak joan eta urteak etorri, Aita Nazario 1952. urtean hil zen bere asmoa bete gabe.

Honekin ez dugu esan nahi Autobiografiaren V. liburua guztiz ezezaguna zenik. Ez. Beronen zatiak, albisteak edo aipamenak hantemen agertu izan dira. Baina idazki hau, den bezala edo osorik, gaur arte ez da azaldu.

Autobiografiaren V. liburu hau ez da luzea. Lau kapitulu ditu soilki, eta Ama Sorazuren bizitzean urte bat doi-doi hartzen du (1910. urteko Uztailetik 1911. urteko Ekainera arte).

Baina urte horretan haren Jainko-bideak gertaldi gogoangarri eta guztiz garrantzitsuak ezagutu zituen. Alde batetik, arimako egoera guztiz desberdin eta bestelakoak, hots, argiune eta ilungu-neak; eta beraien berri zehatz-askoa ematen zaigu kapitulu haue-tan Kezka eta arrangura latzak jasan zituen bere kontzientzian, sosegu onik aurkitzen ez eta. Krisialdi bat oso bortitza sortarazi zion bere Aita Zuzendariagandik jasotako gutun batek, eta krisialdi hori lerro sarkorrez deskribatua ageri zaigu lehenbiziko kapituluan. Bigarrenean, berriz, damu hartzen du bere buruaz gehiegi axolatuz, Jainkoarenak eta Elizarenak pixka bat ahantziak izan dituelako.

Beste aldetik, Ama Sorazuren barne edo izpirituaren pleguak ezagutzeko guztiz salatari diren xehetasun eta dohainik asko ageri dira orri hauetan.

Dohain guzti horietan nagusienetakoa —nagusiena ez bada—, honako hau da, gure ustez: Ama Sorazuk egiari dion maitetasun edo atxikimendu ezin salduzkoa. Bai. Benetan hunkigarria da egiati izateko duen gose-egarria. Ez du ezertxo nahi gezurraz, faltsokeriaz, irudipenaz, eta abar. Egia, den bezalakoxea, maite du, eta hura bi-latzen du. Gezurraren azpian eroriko ote den beldurrak sortarazten dizkio kezkarik bizienak.

Orri hauetan kontatzen zaigu nola hartu zuen bere arimako Zu-zendaritzat Aita Mariano kaputxinoa, eta nola, honen aginduz, hasi zen Autobiografia delakoa idazten.

Zuzendari honen aurretik, ordea, beste bat izana zuen (D. José Hospital Frago, apaiz kalonjea), eta Cos Artzipizpikuaren kontseiluz zuzendaritza hori utzi behar izan zuen, baina jaun horri aldaketa-ren arrazoia agertu gabe, eta hortik istiluak sortzen zitzaizkion. Ho-rretzaz ere xehetasunak daude laugarren kapituluan.

Hirugarren kapituluan pasadizo bat dator, Sorazuren izpiritua-
ren berri sakona jakiteko argi handia egozten diguna. Esaten digu,
alegia, Jainkoagandik hartzen zituen mesede edo Mistika alorreko
graziak, balio gutikotzat jotzen zituela, ez zituela aintzat hartzen
ere (bera bezalako bekatari bati egiten zitzaizkiolako, noski); baina
gero, arimako Zuzendariekin tratatzen, eta, horien aginduz, bere
gauzak paperean jartzen hasi zenean, mesede hauek beste itxura
batean azaltzen zitzaizkiola. Lehen baliogabeko zirudienak orain
bikain eta estimagarri zela ematen zuen. Hortik beldurra gehitu
zitzaion. Itxurati eta gezurtia ote zen beldurra.

Halako irudi edo alegi baten bidez konprenitu zuen gauza ho-
nen misterioa. Ba omen zen baserri batean etxeoandre bat. Jaun
batek emakume honi utzi zizkion altzari, pitxi edo tresna batzuk
etxean gorderik eduki zitzaion. Emakumeak hartu tresnok eta gan-
bara ilun batean sartu zituen, beroien balioaz susmorik ttipiena ere
izan gabe. Baina denbora baten buruan agindu zioten traste horiek
kaleratu eta jende artean banatzeko. Zer zen hura! Jendeak arra-
pastaka, lehiatuki eskuratzen zituen, emakumeak inozokeriak zirela
uste zituen haiek. Orduan ikasi zuen berak gutietsitako gauzak
agian preziatuak zirela.

Baserriko etxeoandre horren ispiluan bere burua ikusten du
Ama Sorazuk. Izan ere, Mistika alorreko mesede eta grazien zale-
tasun edo gutizi izpirik ez zuen sekula santan izan. Zuzendariekin
tratatzean eta gauza horiek iskribuz jartzerakoan, ordea, baziru-
dien bestelakotuak azaltzen zitzaizkiola. Jainkoaren graziak, zeren
bekatari bati egiten zitzaizkion, gehiegitxo gutiesten zituen Sorazuk,
eta arimako Zuzendarien lana izan zen horiek ezertan hartzen hari
irakastea.

«Gezurra dirudi —esaten digu 3. kapituluan—, denbora berean
nola hainbeste mesede har eta hainbeste sufri daitekeen». Galdu-
mendira edo ifernura zihoalako tentaldiak ez zuen baketan uzten.

Baina badaki, halere, ondasun paregabe baten jabe dela. «Ene
errukarria! (nioen). Izan dut, eta badut, ondasun bat, zeruko saria
bera baino ere gehiago estimatzen dudana (Jainkoa ikusteaz lan-
dara), eta ondasun hori Jainko presentziaren sentimendua da; bes-
tela esan, Jainkoa bizi delako ideia, edo, hobeki, Jainkoagan dudan
sineste bizia, eta hortik, eta Haren zoriona ezagutzetik, heldu zai-
dan bozkarria. Baina ondasun hau, mundu honetan izan dudana on-

dasun bakar hau, hiltzen naizenean galdu egingo dut... Ene errukarria!».

Zinez, Sorazuren barnea une horietan guztiz nahasia ageri zaigu, hots, elkarren aurkako diruditen sentimenduz bete. Alde batetik iluna, bestetik argia; zorigaitza eta zoriona, dena batean bildua. Egia esan, bikoiztasun hau moja honen beste iskribu askotan ere azaltzen da.

Hirugarren kapituluan beste hau ere kontaktzen zaigu: Jainkoak, alegia, aditzera eman ziola zein preziatua zen Bere begietan Gizakundeagatik agertzen zuen eskerrona. Hau da: Ama Sorazuk propio eta berariaz eskerrak ematen zizkion Jainkoari bere Semea gizon egina mundura bialdu zuelako. Eta Jainkoak agertu zion zeinen gogozko zitzaion eskerron hori. Hemen dugu, nik uste, arima honen errepeidea. Jainkoaren Semea gugana etortzea, gure ideko egitea, horrek bere onetik ateratzen zuen. Martxoaren 25eko jaia zen berak gehienik ospatzen zituenetako bat.

Egia da maizegi izaten zituela kezka eta saminak, desbideratua ote zebilen beldurragatik, edo bekatutan ote zen izu laborriagatik; baina, hori gora-behera, haren izpiritualitatearen ardatza ez dago hor, beste honetan baizik: Jainko Bakar eta Hirukoitza, Haren Seme gizon egina, Andre Maria: horiek maitatzea, horiengana abiaturik egotea, horiengan bere zoriona kokatzea: horra arima honen errepeidea. Baina hori ere, ordea, ez du egingo, zangoak lurrean ipini gabe, hots, kristau legeak zer eskatzen duen arretaz aztertu eta guzti hori zintzo betetzeko ardura lehiatsu bat hartu gabe.

Gainerakoan, eta jadanik ikusi dugunez, Jainkoak berari egiten dizkion mesedeen gutziarik ez du bat ere. Ez du nahi bere arreta edo atentzioa horietan koka dadin.

Hirugarren kapituluan, hain zuzen, beste gertaera bat kontaktzen digu. Behin, otoitzean zegoela, tristetu nahi zuen, bekatuzko bere izaera eta miseriari oharturik. Nahi zukeen nahigabetu, baina ezin: bat batean poz zirrara edo oldar batek hartzen du, bere kaxkar izate hori ondasuntzat joaz. Eta hara zein zen poz honen iturria: «Zer inporta dit neri kaxkar eta bekatari izatea, baldin Jainkoa eta Ama Birjina diren bezalakoak badira?». Onginahi hutsezko uholde horrek estali zituen bere pena guztiak. Amodio garbiari esker, Jainkoaren zorionak zorientzen zuen.

Laugarren kapituluan kontatzen digu, azkenik, nola bukatu zen bere bizitzeko aldi edo aro bat, eta nola eman zitzaion hasiera aro berriari. Kristok gomit egiten dio bere Jainkotasuna kontenplatzera eta bere loriazko bizitzean parte hartzera. Ordura arte, eta 17 urtetan barna, Jesusen lur gaineko pausoak hausnartu ditu, eta bere borondatez ez luke hortik irten nahi. Luzapen bat eskatzen du oraindik puxka batean otoizgai horretan irauteko, eta Jesusek luzapen hori ez dio ukatzen; baina azkenean konprenitzen du ordua heldu dela. Estalkia kenduz, Jesusek ezaguterazten dio nola maila berrirako prestaturik dagoen.

Ekainaren 11n, Trinitate Sainduko jai bezperan, Ama Birjina tarteko dela, hartzen du Sorazuk Jainko Bakar-Hirukoitzak egiten dion bere buruaren emaitza. Gertaldi honekin Ama Sorazuren bizitzea aro berri batean sartzen da. Baina Autobiografia ere hor bukatzen zaigu.

«Ene arima bizi aro berri batean sartu zen —dio—, Trinitate Sainduaren betiereko edo etenik gabeko festa modu batean, eternitate zoriontsuaren partaidetza nuelarik, eta Jainko Bakar eta Hirukoitzaren biziari nolabait elkartua gelditu nintzen».

Mistikak ezagutzen duen gailurrik altuena zapaldu du Ama Sorazuk. Oraindik hamar urtez biziko da lurrean eta gaindegi horretan ere igoaldi harrigarriak eginen ditu.

* * *

Hitz gutitan esateko: Autobiografiaren V. liburu hau, oso laburra izanik ere, eta Sorazuren biziko tarte guztiz motz eta meharra hartzen badu ere, garrantzi handikotzat jo behar dela uste dugu. Garrantzi handikotzat, batez ere, Ama Sorazuren psikologia eta Jainko bidea ezagutzeko. Gainerakoan, orri hauetan azaltzen zaiguna guztiz ados dago beste iturri eta gutun askotatik ezagutzen dugunakin.

Norbait susmoz baletor, hainbeste zalantza, sufrimen, tentaldi eta kontzientziaren ezten kolpeak direla eta, halakoari esango genioke pentsa dezan ea gauza bera ez ote den nabari Jainkoaren Zerbitzari anitzengan: San Alfonso Ligorio, Lisieuxko Teresa, Bernadette Soubirous, Salesko San Frantzisko, eta abar.